

2013-04-30ean EGINDAKO EZ OHIKO OSOKO  
BILKURA

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL  
PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día  
30-04-2013

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar  
Jose María Herce Isasmendi  
Igor Ezpeleta Oregi  
Jose Angel Petralanda Gil  
Itziar Martínez Iregi  
Iñaki Madinabeitia Elorza  
Rosario Arkauz Arkauz  
Aitor Urrutia Oyanguren  
Jose Luis Cantero Morcillo

Idazkaria.                  Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamahiruko apirilaren 30ean, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ez Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Merino jauna.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 30 de abril de 2013, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta ,con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste el Sr. Merino.

**1.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK (6. eta 7. kreditu aldaketa espedienteak).**

6. eta 7. kreditu aldaketa espedienteak onartzeko erabakien berri eman du Alkateak.

Ondoren transkribatzen da espediente bakoitza osatzen duten DIRU-SARREREN ETA GASTU PARTIDEN KONTZEPTUEN AURREKONTUAREN EGOERA-ORRIA.

**6. ESPEDIENTEA**

**KREDITU TRANSFERENTZIA PROPOSAMENA**

**Gastu partidak: transferitu nahi diren kredituak (bajak)**

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gutxipena	Amaierako kreditua
0502.227.453.00.30	ATXORROTZ ARKEOLOGI LANAK	40.365,60	13.310,00	27.055,60
	<b>GUZTIRA ...</b>	<b>40.365,60</b>	<b>13.310,00</b>	<b>27.055,60</b>

**Gastu partidak: gehitu nahi diren kredituak (altak)**

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
0502.689.453.00.01	ATXORROTX:ZAHABERRITZE LANAK	20.098,10	13.310,00	33.408,10
	<b>GUZTIRA ...</b>	<b>20.098,10</b>	<b>13.310,00</b>	<b>33.408,10</b>

\* Aurrekontu-partida berriak sortu ahal izango dira

**EXPEDIENTE N° 7**

Aurrekontu partida	Kontzeptua	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
0602.649.521.00.01	Aplikazio informatikoak: Komunikazioa.	0,00	6.540,00	6.540,00
	<b>GUZTIRA ...</b>	<b>0,00,-</b>	<b>6.540,00</b>	<b>6.540,00</b>

<b>Sarreren kontzeptuak edota gastuen partidak</b>	<b>Baliabidearen kontzeptua (11)</b>	<b>Sarrera handiagoak / gastuetako bajak</b>	<b>Baliabidea ren partziala</b>
0201.870.000.00.01	SARRERA BERRIAK: Diruzaintzako gerakina:Kreditu Gehigarriak		6.540,00
<b>GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA...</b>		0,00	<b>6.540,00</b>

## **2.- GAI ZERRENDAN HAINBAT GAI SARTZEA BERRESTEA.**

Bertaratutako udalbatzarkide guztiengaldeko botoekin ondorengogai hauek gai zerrendan sartzea berretsi da:

*"SANTA ANA 12" HIE-KO ARAU SUBSIDARIOEN ALDAKETA PUNTUALAREN BEHIN-BEHINEKO ONARPENARI ETA HORRI EGINDAKO ALEGAZIOEI BURUZKO ERABAKIA.*

*BILDU-EUSKO ALKARTASUNA (EA)/ALTERNATIBA ERAIKITZEN (EA-ALTERNATIBA) TALDEAREN HAUTAGAI BERRIA PROPOSATZEA.*

Bozketa egin aurretik Urrutia jaunak adierazi du komentario bat egin nahi duela, eta esaten du osoko bilkura joan osoko bilkura etorri, beti dagoela gairen bat berrestu beharrekoa, eta, bere ustez, askotan, gai zerrendako gai garrantzitsuenetako bat izaten dela, oraingoan moduan arauak aldatzeko gaiarekin. Esan du batzordeen lana hainbeste aldarrikatzen den udal batean berresprena ez ohiko tresna izan beharko litzatekeela, eta errealitatean, hainbeste erabilita, ohiko tresna bihurtu dela.

Alkateak erantzun dio horrek ez duela esan nahi beti, gaia ez dela dagokion batzordean aztertu, eta arauen aldaketa denborarekin aztertu zela batzordean. Kasu honetan, gertatzen dela batzordeak egindako proposamenak ez dituela jasotzen diktamen batek izan beharko lituzkeen eta eztaba idatatu eta bozkatu beharko liratekeen puntu guztiak.

## **3.- LANDAGUNETAKO ZUZKIDURA ETA EKIPAMENDU KOLEKTIBOAK KONPONTZEKO ETA FINKATZEKO DIRU LAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIEI EGINDAKO IRADOKIZUNAK.**

2013ko martxoaren 8an, Eskoriatzako Udalerririko landagunetako zuzkidura eta ekipamendu kolektiboak konpontzeko eta finkatzeko diru laguntzak arautzeko oinariak hasiera batean onartzeko erabakiari alegazioak jarri edo iradokizunak egiteko jendaurrean jartzeko tramiteari hasiera emateko iragarkia argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Jendaurrean egoteko denbora horretan ondorengoko iradokizuna aurkeztu dute Iban Diaz Otxandiano jaunak (BASAURIA MAZMELAKO BIZILAGUNEN ELKARTEAREN izenean) eta Ane Miren Arrese Iturri andreak (BASOTXUETA MENDIOLA ELIZATE ELKARTEAREN izenean):

Honako hau dioen lekuan:

Oinarri hauetan aurreikusitako diru laguntzak eskatu ahal izango dituzte elizateetako edota landa auzoetako biztanleek osatutako irabazi asmorik gabeko elkarredek, betiere, egoitza eta jarduera esparrua Eskoriatzako landa gunean baldin badute.

Honako hau esatea:

Oinarri hauetan aurreikusitako diru laguntzak eskatu ahal izango dituzte elizateetako edota landa auzoetako biztanleek osatutako irabazi asmorik gabeko elkarredek, betiere, egoitza eta jarduera esparrua Eskoriatzako landa gunean baldin badute. Diru laguntza horiek eskatu ahal izango dituzte ere bi elkartea edo gehiagok osatutako elkarredek, betiere, elkarreka horiek Eskoriatzako Udaleko elizateetako edota landa auzoetako biztanleek bakarrik osatutakoak baldin badira.

Hazienda batzorde informatzaileak egindako proposamena ikusi eta aztertuta, eta berori eztabaidean ondoren, Udalbatzarrak, bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Aurkeztutako iradokizuna ONARTZEA.

**Bigarrena.-** Onartutako iradokizunaren ondorioz egindako aldaketarekin, Eskoriatzako Udalerriko landagunetako zuzkidura eta ekipamendu kolektiboak konpontzeko eta finkatzeko diru laguntzak arautzeo oinarriak behin betiko onartzea.

*Eztabaidean zehar Urrutia jaunak adierazi du beldur dela elizateen elkarrean elkarrea izanik diru laguntza jaso behar duena, berak nahi duen moduan ez ote duen kudeatuko jasotako laguntza eta auzo-elkarreak elkarte horren menpe egon.*

*Esan zaio diru laguntzaren bat jaso ahal izateko beharrezko dela zerga eta gizarte segurantzarekiko betebeharra egunean izatea. Elizateetako auzo-elkarreek legeztatu gabe dituzte kontu horiek, eta legeztatu beharko lituzkete deialdiko diru laguntzak jaso nahi izanez gero. Horrek burokrazia lana handia izango zuenez eta laguntzak jasotzea zaildu, pentsatu zen bidea errazagoa izango luketela 7 elkarreak legeztatu beharrean 1 legeztatuta eta horrek ordezkatzea beste guztiak. Adierazi zaio ere diru laguntza guztia finalista izan behar dela, eta elkarreko horrek jasotzen badu diru laguntza, proiektu zehatzak eta aurrez finkatutakoak egiteko izan beharko dela, ez dela bidezkoa diru laguntzarik ematea onuradunak bere gogoaren arabera erabiltzeko.*

---

**4.- TELESKORAKO ESKORIATZAKO EZKERRAKO ORDEZKARIA  
IZENDATZEA.**

Eskoriatzako Ezkerra udal taldeak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, Juan Luis Merino jauna izendatu du Telesko Udal Telebistako zuzendaritzaritzan.

Izendapen horrekin eta 2013ko martxoaren 26an egindakoekin, udal talde politiko guztiekin dute izendatuta ordezkariren bat goian aipatutako zuzendaritzaritzan.

---

**5.- OLAZAR KALEKO 5. ZENBAKIKO JABEEK EGINDAKO HOBARI  
ESKAERA.**

Hirigintza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Olazar kaleko 5. zenbakiko eraikinean igogailua jartzeko emandako baimenak sortutako EIOZaren % 90eko hobaria egitea, obrek betetzen baitituzte hobaria jasotzeko beharrezko baldintza hauek:

- a. Igogailua eraikinaren barnean jarri da.
- b. Ez du eraginik gune publikoetan.
- c. Igogailuaren jaitsiera lekua eraikineko elementu komunetan dago eta ez etxebizitzen leku partikularretan.

## **6.- "SANTA ANA 12" HIE-KO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALAREN BEHIN-BEHINEKO ONARPENARI ETA HORRI EGINDAKO ALEGAZIOEI BURUZKO ERABAKIA.**

2013ko martxoaren 26an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak, aurrez derrigorrezko tramiteak egin ondoren, hasiera batean onartu zuen Juan Manuel Saez Iturrioz arkitekto jaunak Eskoriatzako Udalaren eskariz egindako "Santa Ana 1" HIE-ari buruzko arau subsidiarioen bigarren aldaketa puntuala, eta baita espediente hori hilabetez jendaurrean jartzea ere.

Udalbatzarrak 2013ko martxoaren 26an egindako bilkuran hartutako erabakiz, espediente hori jendaurrean egoteko epea luzatu egin zen 2013ko apirilaren 15eko 13:30ak arte.

Espedientea jendaurrean jartzen zela jakinarazteko, iragarkiak jarri ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2013eko martxoaren 8an, 47. zenbakian, eta 2013ko apirilaren 4an, 63. zenbakian) eta GARA egunkarian (2012ko martxoaren 14an eta apirilaren 2an); eta Eskoriatzako Ezker Anitza-IUk alegazioak jarri zituen.

Alegazioei buruzko txostenak egin dituzte proiektugileak eta Udaleko euskara zerbitzuko teknikariak.

Aurrez esandakoan oinarritura, Lurzoruaren eta Hirigintzako 2/2006 Legeko 91. artikulua ikusita, Hirigintza Batzorde Informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako batzarkide guztiak aldeko botoekin, legeak eskatutako gehiengo absolutuaren quorama osatzen dutena, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Eskoriatzako Ezker Anitza-IUk, jarritako alegazioei dagokienez (sarrera erregistroko zenbakia: 735), eta jasotako txosten teknikoetan oinarrituz,

1. alegazioa, mesedetako komentuaren fundazio datari buruzkoa, ONARTZEA, eta 1955 dioen lekuaren 1555 jartzea.

2. alegazioa, dokumentuaren hizkuntzari buruzkoa, ONARTZEA, eta horren haritik, Udaleko Euskara Zerbitzuari txostena eskatzea, eta aitzortzea hasiera batean onartu eta jendaurrean jarritako dokumentua euskaraz eta gazteleraez idatzita egon beharko zela.

EZ ONARTZEA 3. alegazioa, San Pedro 19 HIEa kalifikatzeko planoetan erabilitako grafiari buruzkoa, zona hori, orokorrean, egoitza zona bezala kalifikatuta dagoelako, erreferentiazko planoan jasotzen den bezala.

EZ ONARTZEA 4. alegazioa, soilik behar beharrezkoak aldatzeari buruzkoa, honako arrazoiarengatik: arau subsidiarioen aldaketan gehieneko okupazio lerrokadurak jasotzen

dira. Proiektoa izango da okupatu beharreko azalera zehaztuko duen dokumentua, eta orduan objektiboki baloratu ahal izango da okupatu beharreko azalera.

EZ ONARTZEA 5. alegazioa, eskape aurrean eta denden aurrean espazioa gordetzeari buruzkoa, honako arrazoiaengatik: arau subsidiarioen aldaketan gehieneko okupazio lerrokadurak jasotzen dira. Proiektoa izango da okupatu beharreko azalera zehaztuko duen dokumentua, eta orduan objektiboki baloratu ahal izango da okupatu beharreko azalera.

EZ ONARTZEA 6. alegazioa, urbanizazio proiekta egin eta tramatitzeari buruzkoa, proiekta egiteak dakaren berrurbanizazio obrek ez dutelako behar besteko garrantzirik tramatitza urbanistikodun proiekta behar izateko.

Hala ere, alegazio jartzaileari esan Hirigintza batzorde informatzailean aztertuko dela Santa Ana komentuko-Zaldibar antzokiko kapera hobetu eta egokitzeo proiekta exekutatzeko 3. faseko obrei buruz herritarrek parte hartzeko prozesurik egin edo ez, eta egitea erabakiko balitz, nola egin.

EZ ONARTZEA 7. alegazioa, aparkalekuei buruzkoa, hori ez baita aldatu beharreko dokumentuko gaia.

**Bigarrena.-** Behin-behinekoz onartzea Juan Manuel Saez Iturrioz arkitekto jaunak Eskoriatzako Udalaren eskariz idatzitako "Santa Ana" 12 HIEri buruzko Eskoriatzako arau subsidiarioen bigarren aldaketa puntualaren dokumentua, egindako alegazioen ondorioz onartutako aldaketekin.

**Hirugarrena.-** Lurzoruaren eta Hirigintzako 2/2006 Legeko 91-2 artikulan aurreikusitako ondorioetarako, espedientearen kopia bidaltza Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeari.

Urrutia jaunaren boto justifikazioa:

Nik diktamenaren alde bozkatu behar dut, baina, horren arrazoia azaldu gura dut. Alegazioei dagokienez, lehenengo bieitako buruz ez daukat ezer esatekorik. Data data da, eta euskararen kontuari buruz, erabat ados nago, eta gainera, gogorarazi gura dut ez dela lehenengo aldia horrelako alegazio bat aurkezten dela, ez dut gogoratzen zergatik eta zeinek, baina, gogoratzen dut Majek txostena egin zuela eta alegatzailera arrazoia eman. Ez da hori gertatzen den lehen aldia, eta uste dut zaindu beharreko xehetasunak direla euskararen erabilera normalizazionalearen alde baldin bagaude. Dokumentazio grafikoari dagokionez, ados nago; eta gainerakoari buruz, uste dut balorazio teknikoa zuzena dela, baina, alegazioak ere zuzenak direla. Uste dut zentzuzko alegazioak direla; uste dut oso eskaera zentzuzkoak direla "soilik behar beharrezkoak aldatzea", "eskape aurrean eta denden aurrean espazioa gordetzea", "kalea berrurbanizatza espaloia kenduta eta...". Eta hemen ez gaude balorazio teknikoen aurrean, egindakoak zuzenak direla uste dut-eta, balorazio politikoa eskatu behar dela uste dut, eta borondate politikoaz hitz egin. Hau da, uste dut borondatea egon behar dela aldaketa soilik behar beharrezkoia izan dadin, eskapeen aurrean zona bat laga dadin eta proiekta egiterakoan biziaguneak parte har dezaten. Nik kontuan hartuko nuen hori guztiori eta borondate politiko hori egotea eskatzen dut.

Alkate jaunak erantzun dio borondate hori argi eta garbi gelditu dela diktamena aurkeztu denean, eta hirigintza batzordean ere islatu dela borondate hori.

## **7.- BAKE EPAILEA AUKERATZEKO OINARRIAK ONARTZEA.**

Pertsonal batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.**- Bake Epaile Titularra eta Ordezkoa lehiaketa bidez aukeratzeko deialdia arautu behar duten oinariak onartzea.

**Bigarrena.** Lehiaketarako deialdia egitea, eta horretarako iragarkia jartzea Udaletxeko iragarki oholean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Eskoriatzako Bake Epaitegian.

**Hirugarrena.**- Hautaketa Epaimahaiko kide izateko ondorengo zinegotziak izendatzea:

- Mahaiburua: Alkatea edo berak eskuordetutako zinegotziren bat.
- Mahaikideak: Arantza Iregi, Jose Antel Petralanda, Juan Luis Cantero, Aitor Urrutia eta Juan Luis Merino.
- Idazkaria: Udalekoa edo berak eskuordetutako funtzionario bat.
- Epaimahaia teknikari baten lagunza izango du euskararen ezagutzeko neurtzeko.

## **8.- UDAL ANTOLAKETA ERREGELAMENDUKO 21. ARTIKULUAREN (Bozeramaleen Junta) ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENA**

Bertaratutako guztiak ezagututa Udal erregelamendu organikoko 21. artikulua aldatzeko Pertsonal batzorde informatzaileak egindako proposamena, Udalbatzarrak, legezko gehiengo absolutuaren quorama osatzen duten bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.**- Udal erregelamendu organikoko 21 artikuluaren aldaketa honela onartzea:

### **21. artikulua.**

Bozeramaleen junta organo aholku emailea eta laguntzailea da, Alkateak edo berak eskuordetutakoak egiten du bertako buru eta udal talde politikoetako bozeramaleek osatzen dute.

Organo hori garrantzi handikoa da maila politiko gorenean informazioa trukatzeko eta eztabaidatzeko, eta baita Udalarentzako eta udal jarduerarako garrantzi handieneko gaietan esku hartzeko. Besteak beste, izaera orokorreko gaiak eta udal intereseoak izan arren udal antolaketan egoki moldatzen ez diren gaiak aztertuko ditu, eta erabaki edota mozio proposamenak egin ahal izango dizkie Udalean erabaki ahalmena duten organoei, horiek onartu ditzaten.

Bozeramaleen juntarako deia bertako buruak egingo du edo bi udal taldek horrela eskatuta. Azken kasu horretan, aztertu beharreko gaiak aipatu beharko dira eskaera idatzian.

Juntaren osaketa baliozkotzat joko da taldeen erdia baino gehiago baldin badaude bertan, eta horiek udalbatzarkideen gehiengo absolutua osatzen baldin badute.

Oro har, bozeramaleen juntaren erabakiak gehiengoz eta boto hantzatuaren arabera hartuko dira.

Bozeramaleen junta izango da erakunde adierazpenak onartzeko organo eskuduna, eta adierazpenak onartu ahal izateko eskubidezko kide guztien sinadura beharko da. Kide guztien babesla lortzen ez bada, testuak edo proposamenak erabaki edo mozio proposamen izaera izango du.

**Bigarrena.**- Erabakia jendaurrean jartzea 30 egunez, nahi duenak erreklamazioak edo oharrak egin ditzan.

**Hirugarrena.-** Aldaketa erabakia behin betikoa izango da, erabaki berrikin hartu behar gabe, jendaurrean jartzeko arauzko epea igarota inolako erreklamaziorik egingo ez balitz.

## **9.- 2013-2015 EKONOMIA ETA FINANTZA PLANA ONARTZEA.**

3. kreditu aldaketa espedientea -kreditu txertaketa bidez- eta 4., 5. eta 7. kreditu aldaketa espedienteak -kreditu gehigarri bidez- onartu zirenean, udal kontuhartzaitzak jakinarazi zuen aurrekontu egonkortasun/gastu arau helburua ez zela betetzen. Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012ko Lege Organikoaren 21. artikuluan ezarritakoaren arabera, beharrezko da Udalbatzarrak denboran proiekzioa izango duen ekonomia eta finantza plan bat onartzea, urtebetean berriz ere oreka lortzeko. Urtebeteko epe hori desoreka agerian jartzen den hurrengo urte hasieratik kontatzen hasiko da.

Horren haritik, eta aipatutako arauak ezarritako hilabeteko epean, Ogasun udal-arloak egindako ekonomia eta finantza plana aurkeztuko da Udalbatzarrak onar dezan. Dokumentu horretan, adierazitako denboran *gastu araua* helburua lortzeko jarraitu beharreko aurrekontu arauak aipatzen dira.

Bestalde, ekonomia eta finantza plana onartutakoan, Gipuzkoako Foru Aldundira bidaliko da eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, bakar-bakarrik planaren berri emateko helburuarekin.

Udal ekonomia zerbitzuek egindako ekonomia eta finantza planaren projektua ikusi da.

Hori horrela, eta Hazienda batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, Urrutia jauna abstentuta eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Ogasun udal-arloak 2013, 2014 eta 2015 ekitaldietarako aurkeztu duen Udalaren ekonomia eta finantza plana onartzea, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012ko Lege Organikoaren 23.4 artikuluan ezarritakoaren arabera. Plana espedientearen ikus daiteke.

**BIGARRENA.-** Aipatutako ekonomia eta finantza plana Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea.

**HIRUGARRENA.-** Plana Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, bakar-bakarrik horren berri emateko helburuarekin, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012ko Lege Organikoko 23.4. artikuluan eta toki-erakundeei dagokien ezarpenean Aurrekontu Egonkortasunari buruzko 18/2001 Lege Orokorraren garapen-erregelamendua onartzen duen azaroaren 2ko 1463/2007 Errege Dekretuko 26. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Urrutia jaunaren boto azalpena:

Aurka bozkatuko dut. Uste dut arkatza sartu behar dela I. eta IV kapituluetan, eta aurreikuspen honek erakusten du datozen urteei begira ez dugula inbertsiorik egiteko ahalmenik izango. Hemen, dagoen dirua Santa Marinatik datorrena da, eta dena antzokirako erabiltzen ari zarete, eta hori "orain ase, bihar gose" da pixka bat. Uste dugu aurreikuspena bestelakoa izan beharko litzatekeela.

Alkate jaunak erantzun dio ez dela aspertuko esaten Santa Marinako diruen helburua aurreko agintaldian erabaki zela, eta banaketa honako hau dela: 130.000 euro elizateetan egin beharreko inbertsiotarako, 2011n egin zirenak; 300.000 euro San Pedro berrurbanizatzeko bigarren faserako; eta, gainerakoa, antzokirako; eta beraz, esan du, diru guztia ez da antzokirako izan.

## **10.- 8. KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA. Kreditu gehigarriak.**

Kredituak aldatzeko 8. espedientea irakurri da. Kreditu aldaketa hori kreditu gehigarri bidez egingo da eta eragina du Udal honetako aurrekontuan.

Idazkari-kontuhartzailak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde

Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Idazkari-kontuhartzaleak egindako txostena eta HAZIENDA OGASUN BATZORDE INFORMATZAILEAK egindako onarpen proposamena ikusirik, proposamena bototara jarri da.

Urrutia jaunak aurka bozkatuta, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiekin alde, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.- UDAL** honetan indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko 8. espedientea onartzea, egindako proposamenaren eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera:

#### GASTUAK ETA KREDITU-ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA



#### **KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA**

Sarreren kontzeptuak edota gastuen partidak	Baliabidearen kontzeptua (11)	Sarrera handiagoak / gastuetako bajak	Baliabidearen partziala
0201.870.000.00.01	Diruzaintzako gerakina: Kreditu gehigarriak.		317.203,25
<u>GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA</u>		0,00	317.203,25€

**Bigarrena.-** Jendaurrean jartea hamabost egunez nahi duenak erreklamazioak aurkez ditzan. Erreklamaziorik ez balego, erabaki hau behin betiko bihurtuko da, eta espediente honi Aurrekontu Orokorra onartzeko ezarritako gainontzeko tramite berak egin beharko zaizkio.

#### **11.- DIRU LAGUNTZA AMUSKARI (2013).**

Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta batzarkide guztien aldeko botoekin Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.**- AMUSKA EMAKUME TALDEAri 2.000 euroko diru laguntza ematea indarrean dagoen aurrekontuko 0303.481.313.70.01 partidaren kontura ondorengo ekintzak finantzatzen laguntzeko

- |                                    |          |
|------------------------------------|----------|
| - Hitzaldiak eta zine foruma ..... | 400,00 € |
| - Ikastaroak.....                  | 800,00 € |
| - Bidaia kulturalak.....           | 350,00 € |
| - Mantentze-lanen gastuak .....    | 450,00 € |

**Bigarrena.**- Emandako diru laguntzari lotutako baldintzak arautzeko helburuarekin hitzarmena egitea erakunde onuradunarekin.

**Hirugarrena.**- Berehala ordaintzea emandako diru laguntzaren % 60a, eta Alkateari ahalmena ematea gainontzeko % 40a ordaintzeko erakunde onuradunak justifikatutakoan diru laguntza hitzarmenean jasota bezala erabili duela.

## **12.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK HASIERA BATEAN ONARTZEA.**

Bertaratutako udalbatzarkide guztiak dute Kultura batzorde informatzaileak emandako diktamenaren kopia bat.

Egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.**- Euskararen normalkuntzarako diru laguntzak emateko araudia onartzea.

**Bigarrena.**- Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 lanegunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak oinariak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan. Aipatutako epearen amaiera larunbata edo jaieguna bada, epea hurrengo lanegunera luzatuko da.

**Hirugarrena.**- Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, araudi hori behin betiko onartutzat joko da bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

**Laugarrena:** Alkate jaunari ahalmena ematea araudia onartu ondoren bertan araututako diru laguntzetarako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

## **13.- ESKORIATZAKO UDALERRIKO IRABAZI ASMORIK GABEKO KULTUR ELKARTEEI ETA TALDEEI 2013AN EGITEKO EKINTZETARAKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK HASIERA BATEAN ONARTZEA.**

Bertaratutako udalbatzarkide guztiak dute Kultura batzorde informatzaileak emandako diktamenaren kopia bat.

Egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.**- Eskoriatzako udalerriko irabazi asmorik gabeko kultur elkarteei eta taldeei 2013an egiteko ekintzeturako diru laguntzak emateko oinariak onartzea.

**Bigarrena.**- Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 lanegunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak oinariak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

**Hirugarrena.**- Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

**Laugarrena.-** Alkate jaunari ahalmena ematea oinarriak onartu ondoren bertan araututako diru laguntzearako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

#### **14.- GAZTEEI LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK HASIERA BATEAN ONARTZEA.**

Bertaratutako udalbatzarkide guztiak dute Kultura batzorde informatzaileak emandako diktamenaren kopia bat.

Egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Gazteei diru laguntzak emateko oinarriak onartzea.

**Bigarrena.-** Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 lanegunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan. Aipatutako epearen amaiera larunbata edo jaieguna bada, epea hurrengo lanegunera luzatuko da.

**Hirugarrena.-** Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, araudi hori behin betiko onartutzat joko da bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

**Laugarrena:** Alkate jaunari ahalmena ematea araudia onartu ondoren bertan araututako diru laguntzearako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

Bozkatu aurretik, Urrutia jaunak esan du bere ustez kontraesan bat dagoela laguntzen helburuen eta balorazio irizpideen artean; deigarria egiten zaiola ez baloratzea ekimena martxan jartzeak gazteentzako izango duen kalte ekonomikoa, laguntzaren arrazoia kalte hori egotea denean.

#### **15.- EZKER ANITZA-IUK AURKEZTUTAKO MOZIOA ADMINISTRAZIOEN ARRAZIONALIZAZIOARI ETA IRAUNKORTASUNARI BURUZKO LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZ.**

Ezker Anitza-IU taldeko ordezkari Merino jauna bilkuran ez badago ere, bere eskariz ondorengo mozioa aztertu da.

Alkate jaunak ondoren osorik transkribatzen den mozioaren xedapena irakurri du:

##### **Eskoriatzako Udalbatzari**

Juan Luis Merino Sanabria, , Ezker Anitza-Iuren izenean, mozio hau aurkezten du, Udalbatzak eztabaidatu eta onar dezan:

##### **AURREKARIAK ETA ARRAZOIAK**

Pasa den otsailaren 15eko Ministro Kontseiluak Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioaren txosten bat jaso zuen, Herri Administrazioen Arrazionalizazioari eta Iraunkortasunari buruzko Legearen aurreproiektuari buruzkoa. Txosten hori Estatu mailatik dator, hau da, Gobernu Zentraletik; beste maila bat, tokikoa, errotik aldatzeko, administrazio hori eta autonomia-administrazioa kontuan izan gabe. Eta kontuan

izan behar da, toki-araubidearen arloko eskumen asko autonomia-administrazioarenak bakarrik direla. Txosten horretan ezartzen dira, 1979az gerotzik udal demokratikoek erakunde frankistak ordezkatu zutenetik Spainian abiarazi zen kudeaketa publikoaren eredu suntsitzeko ildo nagusiak. Herri administrazioen saiakuntza demokratikoa desegin nahi dute, Spainiako eskuin eta egungo gobernuaren eredu zentralizatzale eta autoritarioaren ildo tradisionalari eutsiz.

Herri administrazioaren erreforma izenez ezagutzen dena ez da erreforma bat; suntsiketa bat da. Udalak garatzeko araudia –grina gehiagorekin edo gutxiagorekin– mugiarazi duen printzipio gidaria gaitzesten du: herritarrengandik gertuago dagoen administrazioaren printzipioa, alegia. 1979an gure herrira demokrazia iritsi izanaren adierazpen nabariena udalerri espainiarak izan ziren: herritarrek hautatutako milaka zinegotzi eta alkate beren udaletako gobernuetara sartu ziren, herritarren eskaera larrienei erantzuteko kezka zutelako; eta, udalen eskumenak Konstituzioan zehazteke zeudenez, herritarrek bultzatutako erronka eta jarduketei ekiteko asmoarekin. Herritarrengandik gertuago dagoen administrazioaren printzipio horri jarraiki, gure herrian demokrazia irudikatu zuten erakunde gisa eratu ziren udalak; desentralizazio politikoaren lehenengo ekimena izan ziren, eta orduan egindako urrats hori orain arte atzeraezina izan da.

2011ko irailean Spainiako Konstituzioaren 135. artikulua aldatu zen, PSOEk eta PPk adostuta; aldaketa sonauta eta tragikoa izan da, izan dituen ondorioengatik. Aldaketa horretan, aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa jotzen da herri-administrazio guztien printzipio gidaritzat; eta obsesio horri makurtu nahi zaio orain toki-administrazioa, aldaketa horren bidez; kontuan hartu gabe zorrotzetasun horrek gizartean, eta batez ere maila apalenetan, eragiten dituen ondorioak (pobrezia eta zerbitzuen kaltetzea).

Txostenean defendatzen da lehenengo aldiz udalen eskumenak lege bidez argitzen direla; baina egiaz erkidego autonomoetako estatutuen bigarren belaunaldian jada zehaztu dituzte udalerrien eskumenak; horren adibide agerikoenak dira Kataluniako eta Andaluziako estatutu berrituak. Nolabaiteko bigarren desentralizazio bat gertatu baita, udalen alde. Estatutu horiek Gorteek onartutako lege organikoak dira, eta bloke konstituzionalaren parte dira. Euskadiko instituzioak ez ditu kontutan hartzen, hemen ez daude Probintziako Diputazioak Foru Aldundiak baizik, eta toki erregimena arautzeko eskumen esklusiboa dago, bi aspektu hauek ez du kontutan hartzen aurreproiektuak.

Txostenean esaten da bikoitzasunak eta eskumen desegokiak kentzen direla, toki-administrazioa aurrekontu-egonkortasunaren eta iraunkortasunaren printzipioetara egokitzearen; printzipio horiek aipatutako Spainiako Konstituzioaren 135. artikuluak ezartzen ditu. Baina ez dira bikoitzasunak kentzen –izan ere, badira eskumen partekatuak, eta kargarik gabeko udalek edozein zerbitzuri aurre egiteko aukera dute–; izatekotan, udalerriek berezkoak dituzten eskumenak kentzen dira, hezkuntza, osasun edo gizarte zerbitzuen arloan, eta eskumen horiek erkidego autonomoetara pasatzen dira, dagokien finantziaziorik gabe; izan ere, Gobernuak 3.282 milioi euroko aurrezpena bikoitzasun horiek kentzearekin lotzen du. Bikoitzasunei buruz hitz egiten dute, zerbitzuen suntsiketa esan nahi dutenean. Eskumenak argitzeari buruz hitz egiten dute, toki-administrazioa ahalik eta gehien murriztea esan nahi dutenean.

Erreformaren funtsa da administrazio bat bestearen tutoretzapean egotea. Erakunde autonomikoek toki-araubidean dauzkaten eskumenak alde batera uzten ditu, eta udalak mespretxatzen ditu, gainerako administrazioen maila berean Estatuaren parte direnak. Erreformaren araudi-alderdi guztietan errepikatzen da finantza-iraunkortasuna kontrolatzeko nahi hori. Antolakuntza-egitura arrazionalizatzeaz hitz egiten du, zerbitzuak eta erakunde instrumentalak pribatizatzea esan nahi duenean; eta adierazten du helburuetako bat dela ekimen ekonomiko pribatua bultzatzea, eta administrazioaren gehiegizko esku-hartzeak saihestea. Hain zuen ere, hor dago kontrarreformaren ganga-giltzarria: toki-demokrazia ahuldu, haren eskumenak murriztuz; udal kudeaketan finantza-printzipio neoliberalak lehenetsi beste edozeren gainetik; antigoaleko erakunde bat (probintzietako aldundiak) indartu, segiziozalea eta gardentasun eta kontrol demokratikorik gabea; eta erakunde horrek zerbitzu publikoak pribatizatzea, haien eskumenen titulartasuna galtzen duten udalerrietan. Profesionaltasuna eta gardentasuna deitzen diote toki-esparruko politika suntsitzeari.

Erreforman ordezkaritza politikoan jauntxokeriara eta elitismora itzultzeko asmoa sumatzen da; eta haien proposamen guztiz antidemokratikoa zuritzeko, kargu publikoen gastua aurreztuko dela diote; eta aurrezpen hori, izatekotan, gehienez ere aurrezpen osoaren % 2 izango da. Tokiko kargu publikoen ordainsariak % 82ra mugatzeaz hitz egiten dute; eta Spainiako 8.116 udalerrietako 68.285 zinegotzien artean jada badago portzentaia horri dagokion ordainsari gabezia.

Azkenik, erreformak neoliberalek udalei buruz dauzkaten aurreiritzia islatzen ditu, udalen errealtitatearekin zerikusirik ez dutenak; haien iritzian, udal gehiegiz daude –alboko herrialdean (Frantziar) 367.000 udalerri daude–, edo oso zorpetuta daude –Tokiko zorraren ehunekoa herri-administrazioen zorrareniko, doikuntza-

plangintzen eragina aztertu aurretik, % 40koa da, eta zor hori 250.000 biztanle baino gehiago dauzkaten 10 hiriren artean batzen dute (Ceutak izan ezik), eta lehenengoa Madril da, zorraren % 22,5 duena.

Ez dago daturik 2013tik 2015ra bitarte 7.129 milioi euro aurreztuko direla ziurtatzen duenik; guztiz kontra, ikerketa independenteek frogatzen dute aurreikuspen hauek faltsuak direla eta puztuta daudela

Azken batean, toki-administrazioaren kontrarreforma hau udalerri demokratikoen historia laburrean haien jasan duten erasorik bortitzena da; erreformarekin zentralizaziora itzuliko gara, eta garai batean bezala, udalerriak gobernu zentralaren politikak gauzatzeko tresna hutsa izango dira. Ministroen Kontseiluak ekimen horrekin Espainiako udalerriek 1979an hasitako esperientzia demokratikoa salbuespen historiko bilakatu nahi du.

Erreforma honek gertuen dugunari botera kentzen dio, herritarren kudeaketa publikotik urruntzen ditu; noraez autoritarioa indartzen du; parte-hartze gehiago, demokrazia gehiago eta gardentasun gehiago eskatzen duten herritarrengandik politika urruntzen du. Gobernuaren erantzuna hau da: tutoretza gehiago, demokrazia gutxiago eta herri-arazoetan parte-hartze txikiagoa.

Erreforma horrek herritarren erreferentziarik gertukoena desegin nahi du, herri-ordezkaritzara iristeko lehenengo maila; horretarako, finkatutako eskumen eta zerbitzuak kentzen ditu, eta horrekin batera, finantziazioa kentzen die, geratzen diren zerbitzuak pribatizatzera behartzeko. Laburbilduz, ondorio hauek ditu:

- Udalen eskumenen hustura eta murrizketa.
- Eusko Autonomi Erkidegoaren Erakundeen errealitatea ez du kontutan hartzen.
- Zeharka hautatzen diren administrazioak indartzea.
- 5.000 biztanletik beherako udalen kontrola eta 20.000tik beherakoen eskumen-galera, Aldundien mesedetan.
- Toki erakunde txikien nortasun juridikoa desagerrarazten du, Arabako kontzejuak adibidez.
- Estatu mailako gaikuntza duten toki-administratioetako funtzionarioak berriz ere zentralizatzea.
- Zerbitzu publikoen pribatizazioaren alde egitea, eta konsortzio eta udal enpresak desegitea.
- Eskumenak kentzea, besteak beste, gizarte zerbitzuen, berdintasunaren, hezkuntzaren edo ingurumen-sustapenaren alorretan.
- Udal autoantolakuntzaren eta tokiko autonomiaren printzipioa kentzea.
- Udalei tokiko ekonomia dinamizatzeko gaitasuna kentzea.
- Kalitate-adierazleetan soilik finantza arloko irizpideak sartzea, herritarren arretarekin, gizarte arloarekin edo oinarrizko giza eskubideekin zerikusia duten irizpideak kontuan izan gabe.

Azaldutako guztiagatik, udal talde honek Udalbatzari aurkezten dizkio ondorengo

#### AKORDIOAK

1.- Gaitzestea toki-administrazioaren arrazionalizaziorako eta iraunkortasunerako lege aurreproiektuaren testua eta erretiratzeko eskatzea.

2.- Gobernu Zentralari adieraztea, toki-erakundeei eragiten dien edozein erreforma egiteko, haien parte-hartzea ezinbestekoa dela, bai zuzenean eta bai autonomia-erkidegoen bitarte, haiei dagozkien eskumenetan.

3.- Bat egitea erreforma hau gerarazten saiatzeko legezko ekintza guziekin, baita konstituzionaltasun ezeko helegitearekin ere, halakorik aurkeztuko balitz.

4.- Bat egitea, herritarren interesetatik gertu dagoen munizipalismo demokratiko baten alde sortzen diren plataforma guziekin.

5.- Udal gobernuari eskatzea partaidetzako ekintzak burutu ditzala, kontrarreforma horrek herritarrengan izan ditzaken ondorioak jakitera emateko

Akordio hauen berri emango zaie, udalerriko herritarrei, Gobernuko presidenteari, Gorte Nagusietako eta Eusko Legebiltzarreko talde parlamentario guziei eta euskal udalen elkarteari EUDEL.

Juan Luis Merino Sanabria.

Bozkatu ondoren, mozioa aho batez onartu da.

## **16.- ZINEGOTZIAK KARGUARI UKO EGITEAREN BERRI IZATEA.**

Itziar Martinez Iregi andreak 2013ko apirilaren 24an (sarrera erregistroko zenbakia: 798) sinatutako idatzia ikusi da. Itziar zinegotzi hautatu zuten Bildu-Eusko Alkartasuna (EA)/Alternatiba Eraikitzen (EA-ALTERNATIBA) alderdiko zerrenda politikotik azken udal hauteskundeetan, eta idatzi horretan, bertan azaltzen dituen arrazoiengatik, Udalbatzar honetako kide izateari uko egiteko asmoa adierazten du.

Kontuan hartu dira Toki Erakundeetako Antolakuntza eta Funtzionamendu Arautegiaren 9.4 artikuluan eta Hauteskunde Arautegi Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoko 15.2, 19.1.I) eta 182. artikuluetan ezarritakoak eta horiekin bat datozen gainerako arauak, bereziki, Hauteskunde-Batzorde Zentralak tokiko ordezkar-karguak ordezkatzeari buruz 2003ko uztailaren 10ean emandako instrukzioa.

**Itziar Martinez Iregi andreak** Udal honetako zinegotzi karguari **uko egitearen berri izan du** Udalbatzarrak, eta **agintzen du erabaki honen ziurtagiria bidaltzeko Hauteskunde-Batzorde Zentralari**, dagokion hautagaiarentzako hautetsi izaera egiazatzeko egiaztagutuna eman dezan.

Hitza eman ondoren, ondo tratatu dutelako eskerrak eman dizkie Martinez andreak bertaratutako guztiei, eta asko ikasi duela esan du.

Alkate jaunak erantzun dio Udala dela eskerrak eman behar dizkiona karguan egon den bi urte hauetan egindako lanarengatik, eta ongi eterria izango dela beti.

## **17.- BILDU-EUSKO ALKARTASUNA (EA)/ALTERNATIBA ERAKITZEN (EA-ALTERNATIBA) TALDEAREN HAUTAGAI BERRIA PROPOSATZEA.**

Udalbatzarraren bilkura honetan Itziar Martinez Iregi andreak Udal honetako zinegotzi karguari uko egin izanaren berri izan du Udalbatzarrak.

2012ko ekainaren 4an egindako osoko bilkuran egiaztatu zenez, Bildu-Eusko Alkartasuna (EA)/Alternatiba Eraikitzen (EA-ALTERNATIBA) alderdiaren azken hauteskundetako zerrendako hautagai hautetsi guztiekin zinegotzi kargua hartzeari uko egin zioten.

Uko egite horien ondorioz, ez da gelditzen ordezko hautagairik Bildu-Eusko alkartasuna (EA) /Alternatiba Eraikitzen (EA-ALTERNATIBA) alderdiko zerrendan.

Hauteskunde Arautegi Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoko 182. artikuluan jasotakoaren babesean, Bildu-Eusko Alkartasuna (EA)/Alternatiba Eraikitzen

(EA-ALTERNATIBA) alderdiak MAIDER LANDA RUIZ DE AZUA andrea proposatzen du ordezkotzat.

Hauteskunde Arautegi Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoko 182. artikuluan eta horrekin bat datozen gainerako arauetan ezarritakoa kontuan izanik, Bildu-Eusko Alkartasuna (EA)/Alternatiba Eraikitzen (EA-ALTERNATIBA) alderdiak egindako proposamenaren berri du Udalbatzarrak, eta agintzen du erabaki honen ziurtagiria bidaltzeko Hauteskunde-Batzorde Zentralari, azken horrek Bildu-Eusko Alkartasuna (EA)/Alternatiba Eraikitzen (EA-ALTERNATIBA) alderdiak proposatutako ordezkoari, MAIDER LANDA RUIZ DE AZUA andreatzari, hautetsi izaera egiazatzeko egiaztagutuna eman diezaion.

## **18.- GALDE-ESKEAK.**

- Urrutia jaunak egindako galderak:

### **1.- Uraren presioarengatik zenbait galdera partikularretan izandako kalteak.**

Esan du entzun duela uraren presioarengatik arazoak egon direla eta kalteak sortu direla zenbait galdera pribatutan. Gertatutakoaz galdu du, eta zein izan den presioa handitzeko arrazoia.

Alkateak jakinarazi dio gaia Ogasun batzordean aztertuko dela.

### **2.- Banderen gaia**

Banderen kontua dela-eta Alkatea Teleberrin ikusi duela esan ondoren, zer egiteko asmoa dagoen galdu du.

Alkateak jakinarazi dio Pertsonal batzordean gaiaren berri eman zela, eta baita ere zein den epaia betetzeko proposamena.

### **3.- “Atez ateko” ezartzeko mankomunitateak deitutako kontratazio prozesua bertan behera gelditu izana**

Prozesua eteteari buruzko informazioa eskatu du.

Alkateak esan du lehiatzaileetako batek errekurritu egin duela esleipen proposamena, eta gaia etenda dagoela errekursoa erabaki arte.

**Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 7:40an. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.**

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

Maria Arantzazu Iregui Villar  
Jose Maria Herce Isasmendi  
Igor Ezpeleta Oregi  
Jose Angel Petralanda Gil  
Itziar Martinez Iregi  
Iñaki Madinabeitia Elorza  
Rosario Arkauz Arkauz  
Aitor Urrutia Oyanguren  
Jose Luis Cantero Morcillo

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamahiruko apirilaren 30ean, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ez Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Merino jauna.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 30 de abril de 2013, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta ,con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste el Sr. Merino.

**1º.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDIA (expedientes de modificación de créditos nº 6 y nº7)**

El alcalde da cuenta de las resoluciones aprobatorias de los expedientes de modificaciones de créditos nº 6 y nº 7

A continuación se transcribe el ESTADILLO PRESUPUESTARIO DE LOS CONCEPTOS DE INGRESOS Y PARTIDAS DE GASTOS QUE CONFORMAN cada uno de los expedientes.

**EXPEDIENTE Nº 6**

**PROPIUESTA DE TRANSFERENCIA DE CRÉDITOS**

**Partidas de gasto: créditos que se quieren transferir (bajas)**

Partida	Denominación	Crédito inicial	Reducción	Crédito final
0502.227.453.00.30	TRABAJOS ARQUEOLÓGICOS EN ATXORROTZ	40.365,60	13.310,00	27.055,60
	<b>TOTAL ...</b>	40.365,60	13.310,00	27.055,60

**Partidas de gasto: créditos que se quieren incrementar (altas)**

Partida (*)	Denominación	Crédito inicial	Incremento	Crédito final
0502.689.453.00.01	ATXORROTX: TRABAJOS DE RESTAURACIÓN	20.098,10	13.310,00	33.408,10
	<b>TOTAL...</b>	20.098,10	13.310,00	33.408,10

\* Podrán crearse nuevas partidas presupuestarias

**EXPEDIENTE Nº 7**

<b>Partida presupuestaria</b>	<u>Concepto</u>	<u>Créditos</u>		
		<u>Actuales</u>	<u>Modificaciones</u>	<u>Definitivos</u>
0602.649.521.00.01	Aplicaciones informáticas: Comunicación	0,00	6.540,00	6.540,00
<b>TOTAL ...</b>		<b>0,00,-</b>	<b>6.540,00</b>	<b>6.540,00</b>

<b>Conceptos de Ingresos y/o partidas de Gastos</b>	<b>Concepto del recurso (11)</b>	<b>Mayores Ingresos y/o Bajas en Gastos</b>	<b>Parcial del recurso</b>
0201.870.000.00.01	NUEVOS INGRESOS: Remanente de tesorería:Créditos adicionales		6.540,00
<b>TOTAL IGUAL A LOS INCREMENTOS DE GASTOS...</b>		<b>0,00</b>	<b>6.540,00</b>

## **2.- RATIFICACION DE LA INCLUSION DE ASUNTOS DENTRO DEL ORDEN DEL DIA.**

Con el voto favorable de todos los corporativos presentes se acuerda ratificar la inclusión de los siguientes asuntos dentro del orden del día:

*ACUERDO SOBRE ALEGACIONES Y SOBRE APROBACION PROVISIONAL DE LA MODIFICACION PUNTUAL DE LAS NNSS ENEL AREA AIU 12 “SANTA ANA”.*

*PROPIUESTA DE NUEVO CANDIDATO POR BILDU-EUSKO ALKARTASUNA (EA)/ ALTERNATIVA ERAKITZEN (EA-ALTERANTIVA)*

